

Lapurtutako haurtzaroa

"Askatasun haizea
balaz gelditu nahi ohi du
ero astoak,
tiranoak!"
J. ARTZE

Etxe hartara iritsi nintzenean bertako alabek, Juliak eta Maria Luisak, zazpi eta bost urte zituzten hurrenez hurren.

Aldaketa handia izan zen niretzat ordura arte hirian bizi izan bainintzen etxe polit eta handi batean baina Irurako bizimodua ordura artekoarekin erkatuz gero hain desberdina izan arren, jendea, paisaiak, jolasak, niretzat dena berria bazen ere, inoiz ahaztuko ez ditudan egunak igaro nituen familia harekin; Armendariz familiarekin.

“Gure Torrea” izena zuen etxe txiki batean bizi ginen Irurako herriaren sarreran eta aitamek Irurako paper fabrika lan egiten zutenez ez genuen ezerren faltarik.

Julia eta Maria Luisa eskolara joaten ziren orduetan bakarrik egoten nintzen etxean haurren barre algarak noiz adituko zain baina etxera bueltatzen zirenean ordu luzez jolasten genuen elkarrekin.

Hara iritsi eta pare bat astera ordea, denon bizitza aldatuko zuten gertakariak jazo ziren.

Eguraldi beroa egiten zuen eta goizean goiz Loatzo mendira joan ginen egunpasa. Juliak eta Maria Luisak eguna jolasean pasa zuten eta gurasoek ere, eguneroko arazoetatik aldentzeko parada izan zuten.

Etxera bidea hartu eta Irurara iritsi ginenean ordea, izugarrizko kotxe ilarak ikusi genituen Donostiara bidean. Aitak, ahal zuen moduan kotxe haietako batera gerturatu

eta gidariari zer gertatzen zen galdegin zion. Gizonak inoiz ahaztuko ez genuen erantzuna eman zion, gure bizimodua aldatuko zuen erantzuna: *"Ejertzitoa armak hartu eta kalera irten duk. Gerra hasi dela esan ditek irratian"*.

Aitak, gertatzen zenaren kontzientzia hartuta, ahalik eta azkarren Iruratik alde egin behar genuela erabaki zuen.

Kolpe handia izan zen hura, ezer ulertzen ez zuten Julia eta Maria Luisarentzat baina aitak esana bete zuten ixil-ixilik eta berehala, ahal genuen guztia batu eta gure etxea, familia, lagunak eta herria atzean utzi behar izan genituen.

Ordiziako familia batekin ekin genion bideari eguzkia sartu bezain pronto eta Lasartera iritsi ondoren, Eibarrera eramango gintuen trena hartu genuen. Ondoren, Eibartik Etxebarriara abiatu ginen autobusez. Bidaia guztian inork ez zuen txintik ere atera, hitzak soberan izaten baitira biharamunak zer ekarriko digun ez dakigunean; beldurrak eta zalantzek barrua kolpatzen digutenean.

Etxetik kanpo eman genuen lehen gau hura ezin izango dut inoiz ahaztu. Juliak eta Maria Luisak estu hartu ninduten euren besoen artean eta inork hitzik egin ez bazuen ere, denok esna, aztoratuta, begirik bildu ezinik igaro genuen gaua eta horrela aurkitu gintuen egunsentiak.

Goiz hartan bertan iritsi ginen Markinara eta gurasoak galdezka ibili ondoren, Agarrenburu baserrian hartu gintuzten apopilo nazionalengandik ihesean genbiltzala jakin ordurako.

Amak baserrian egiten zuen lan eta Juliak eta Maria Luisak, haurrak baitziren artean, ahal zuten bezainbeste laguntzen zioten. Aitak aldiz, badaezpada ere gordeta egon behar zuela eta, eguna mandioan igarotzen zuen gauak askatasun apur batez gozatzeko aukera noiz emango zain.

Ni ere baserrian gelditzen nintzen , leihotik begira, Julia eta Maria Luisaren esperoan. Luze joaten zitzaizkidan orduak baina bi ahizpak etxera iristen zirenean, nirekin jolasean hasi orduko, ahazten nuen itxaronaldi luzea.

Hala joan ziren egunak nazionalak Markinan sartu zirela jakin genuen arte. Aitak, kintek hartu zutela eta, bere burua aurkeztu zuen nazionalen aurrean eta Kalamuara eramane zuten gu baserrian utzita.

Egun gogorrak izan ziren haiek denontzat; Juliak eta Maria Luisak ere, nahiz eta gertatzen zenaz ezer handirik jakin ez, ez zuten nirekin jolasteko gogorik izaten eta gauean, sukaldeko suaren bueltan bisai ilunak eta isiltasuna izaten ziren nagusi su-garrak itzaltzen ziren arte.

Aita, noizean-behin itzultzen zen Kalamuatik baserrira baina egun haietan ere ez zen algara handirik izaten. Agarrenburu-n jakin bai baikenekien atzera ere mendira, nazionalen mehatxupera itzuli beharko zuela.

Hala eta guztiz ere, egunik gogorrena Gernika bonbardatu zutenekoa izan zen. Egun guztia eman genuen mendian, egun batzuk lehenago hegazkinak ikusi ondoren egindako zuloetan dardarka, zerura begira. Juliak eta Maria Luisak inoizko estuen heltzen ninduten euren eskuen artean; min emateraino estutzen ninduten.

"Burrin-burrinak", hegazkinei hala deitzen zieten txikiek, hirunaka hirunaka igarotzen ziren gure buruen gainetik eta hotzikara bortitzek astintzen ziguten gorputza Gernikan erortzen ari ziren bonben eztandak entzuten genituenean.

Baina egun haiek guztiak ere igaro ziren eta etxera itzultzeko orena iritsi zitzaigun. Ama, Julia, Maria Luisa eta laurok Irurarako bidea hartu genuen aita kartzelara, Logroñora, eramane zuten artean.

Irurara iritsi ginenean konturatu ginen ordea, gogorrena hasi baino ez zela egin. Markinara abiatu ginen egunean bertan, Tolosako hainbat gizon aitaren bila joan zirela jakin genuen bai eta bere lagunik minenak fusilatu zituztela ere eta hura gutxi balitz, amari inork ez zion lanik eman nahi gorriekin ibilia zela eta. Kolean jendeak ez-ikusiarena egiten zigun eta familian ere, asko ziren laguntza ukatzen zigutenak.

Gauzak horrela, amak Donostiara, inork ezagutzen ez zuen lekura, joan behar izan zuen lanera eta Julia eta Maria Luisa aiton-amonenean geratu ziren ama ikusteko asteburua noiz iritsiko zain.

Nirekin ere gero eta gutxiago jolasten zuten eta Maria Luisaren eskuetan igaro nuen azken eguna gogoratzen ematen ditut orduak ganbara heze eta ilun honetan.

Amak diru pixka bat aurrezteko lortu zuen eta laurok Logroñora abiatu ginen aita ikustera. Maria Luisa urduri zegoen eta bidaia guztian zehar hitz eta pitz aritu zitzaidan. Aitari muxu goxo bat emateko gogoaz zuela, eskolan ikasitako guztia erakutsi nahi ziola...

Hara iritsi ginenean ordea, ez ziguten aitarekin egoten utzi eta Maria Luisaren negar anpluek nire soineko zuria busti zuten. Orduan konturatu nintzen beste hainbati bezala, gerra hark Maria Luisari ere haurtzaroa lapurtu ziola; ez zela inoiz nirekin gehiago jolastuko.

Egun hartan etxera iritsi ginenean Maria Luisak ganbarara eraman ninduen eta bertan geratu naiz urte luzez gaur nire bila itzuli den arte.

Begiak malkoz beteta hartu nau esku artean eta bere bilobak ezagutu nahi nauela esan dit; ezagutu behar nauela.

Unibertsitatean eskatu dioten lan bat egiteko grabazio bat egin behar zuela eta, jo omen du amonagana eta gerrako oroitzapenak kontatzen hasi orduko gogoratu omen da Maria Luisa nirekin; trapuzko panpina xaharrarekin.

Urte luzez gordeta, bihotzean giltzapean izan dituen oroitzapenak bilobari kontatzean behinola Logroñotik bueltan soineko txuria busti zidaten anpuluek berriz ere busti naute eta bilobari gertatutakoak kontatzen hasi denean, lehen ohi zuen bezala estutu nau bere besoetan eta une batez haurraren eskuetan nagoela iruditu zait. Denborak, oroitzapenek itzuli diote azkenean garai batean gerrak kendu ziona.

Iztroz